

Aurten ere zer irentsi badaukate liburujaune

Leioako Udaleko Kultura Sailak, Udal Liburutegiak eta Euskara Zerbitzuak hirugarren urtez antolatu dute irakurketaren inguruko Liburujaune izeneko jokoa, aurten aldaketa eta berritasun ugarirekin gainera, tokiko iturriek adierazi dutenez. Horrenbestez, bost liburu irakurri beharko dituzte parte hartzaileek eta horien inguruan egingo zaizkien galderei erantzun. Aurten proposaturikoak ondokoak dira: "Egunero hasten delako" (Ramon Saizarbitoria); "Hamar urte barru" (Joxe Belmonte F. de Larrinoa); "Han goitik itsasoa ikusten da" (Julen Gabiria); "Korapiloak" (Jasone Osoro); eta "Kutsidazu bidea Ixabel" (Joxean Sagastizabal). "Irakurtzeak misterioz beteriko mundu anitzetara garamatza. Batzuk gustura sartzen dira bidaia horretan, baita irrikitan sartu ere; beste batzuei, ordea, izugarri kostatzen zaie letretako zubi hori zeharkatzea. Horregatik, liburuez gozatzeko eta irakurketaren alde ludikoa azpimarratzeko Liburujaune irakurketa jokoa adiatu dugu", azaldu dute kultur arduradunek.

Jokoa 16 urtetik gorakoentzat da, eta bi kategoria jarri dituzte: euskara eta gaztelera. Bakoitza bestearekiko independentea da, beraz, batean edo bietan parte har daiteke. Kategoria bakoitzak bere liburu zerrenda du, liburuetao bat biotan berdina delarik ere. Bi kategorietan parte hartzeak sari berezia du gainera. Liburua irakurri dela jakiteko sei itaun egingo dituzte antolatzaleek. Galderek erantzun zehatz-zehatza izango dute, eta liburuan bertan topatzen den informazioaz baliatu beharko da lehiakidea. Liburuen galderak liburutegian eta bere web-orrialdean (www.bibliotecaspublicas.es/leioa) edo Kultur Leioako webgunean eskura daitezke.

Martxoaren 31 arte dago erantzunak entregatzeko aukera, eta Kultur Leioako liburutegira eraman beharko dira, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 20:00etara. Gainera, liburutegia[abildua]leioa.net helbidera ere bidali daitezke, Liburujaune jokorako dela zehaztuz, datu guztiak jarritz. Apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez, sari banaketa izango da 18:00etatik aurrera Kultur Leioan.